

Konfinamendua luze joan da, espero baino luzeago, eta horrek aldaketa sakonak emateko tarte eskeini du. Hemen adibide batzuk:

- Zeresana eman dute animaliek espazio urbanoetara lotsagabe egindako inguratzeek baina naturan benetako aldaketa lurrazpian eman da. Onddoen mizelio sareak osatu, sendotu eta zabaldu dira, orain landare guztiak konektatzen dituzte izugarritzko informazio sarea osotuz. Landaredi osoa konektatuta dago, internet naturala, eta mehatxuei modu kolektiboan erantzuteko gai da. Sare hori entzun eta ulertzeko gai izango bagina, nola lagunduko genioke?



- Txomin Auzo hackerrak banketxe, korporazio eta jauntxoek lapurtutako enpresa jarraipena egin du eta behin horien gordailu ziren ezkutatutako kontuak aurkituta denak batera hustu ditu. Hortarako denbora izan du baina ez diru guzti hori modu bidezko eta eraginkor batean nola banatu eta erabili erabakitzeko. Egia esan, nahiago du hori modu kolektiboan egitea. Hortarako prest?

- Konfinamenduak iraun duen bitartean ilobarik zaindu beharrik ez eta gainera Covid-19 gairitu duten adinduek super-antigorputzak garatu dituzte, beraien bizi-itxaropena nabarmen luzatu da, marka guztiak gairituko dituzte. Horren jakitun indartsu sentitzen dira eta ekintzarako prest daude. Nondik hasiko dira?



- Ogia egiteko irin errazionamendua dela eta askok sukaldetik irten eta beste eskulan batzutarra jo behar izan dugu. Adibidez, nik betidanik desioen zerrendan nuen collageari ekin diot eta... horri lotutako superbote bat dudala ohartu naiz: nik ordu txikitik ebaki eta itsasitakoak gauzatzen dira, benetan sortzen dira. Cut&paste egiteko proposamenik?